

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5496

AGINDUA, 2018ko urriaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, Berrizko udalerrian (Bizkaia) Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatu bat ireki eta jardunean hasteko baimena emateko dena.

Aztertuta geratu da «Umerri Kooperatiba Elkartea» erakundearen ordezkariak aurkeztutako eskaera, zeinaren bidez eskatzen baita Berrizko udalerrian Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatu bat irekitzeko eta jardunean hasteko baimena ematea Lehen Hezkuntzako irakaskuntzak emateko, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete behar dituzten gutxieneko baldintzak ezartzen dituen otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera (martxoaren 12ko BOE).

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta arlo horretan eskumena duten erakundeek horri buruzko txostena eman dute.

Arau hauek ikusi dira: araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak eskaintzeko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua (9ko BOE); apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua (martxoaren 12ko BOE); otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete behar dituzten derrigorrezko baldintzak ezartzen dituen (martxoaren 12ko BOE), eta gai horretan aplikatu beharreko gainerako legeak. Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Jarraian zehazten den ikastetxe pribatua irekitzeko eta jardunean hasteko baimena ematen da:

Kode zenbakia: 48019602.

Izen generikoa: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe pribatua.

Izen espezifikoa: «Umerri Eskola Aktiboa».

Titularra: Umerri Kooperatiba Elkartea.

Helbidea: Elizondo plaza, 2.

Udalerria: Berriz.

Lurralde historikoa: Bizkaia.

Baimentzen diren irakaskuntzak:

– Lehen Hezkuntza. Edukiera: 2 unitate, lehenengoak 24 ikaspostu izango ditu eta bigarrenak 25 ikaspostu.

2. artikulua.– Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, agindu honen bidez baimenduko diren irakaskuntzak emango dituzten irakasleen titulazio akademikoari eta hizkuntza-eskakizunari dagokienez. Bestela, bidezkoa litzateke emandako baimena baliogabetzea.

3. artikulua.– Baimendutako irakaskuntzak egun indarrean dagoen antolamendu akademikoak ezarritakoari jarraituz irakatsiko dira, eta irakaskuntza horietan edozein aldaketa egin nahi izanez gero, beharrezkoa izango da Hezkuntza Sailaren baimena izatea.

4. artikulua.– Ikastetxeak martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzako Kode Teknikoa bete beharko du, bai eta indarreko legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Ikastetxearen titularraren erantzukizuna izango da baldintza horiek betetzea.

5. artikulua.– Indarrean dauden arauak betetzera behartuta dago ikastetxea, eta agindu hone-tan adierazitako daturen bat aldatu behar bada, dagokion baimena eskatzera.

6. artikulua.– Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen Lege Organikoaren 23. artikulua-ren arabera, emandako baimena baliogabetu egingo da ikastetxeari baimena ematerakoan jarraitu-tako araudiak ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, edo baimenduta dituen irakaskuntzak egungo indarreko antolamendu akademikoak ezarritako arauen arabera irakatsiko ez balira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ikastetxea sortzeko eta jardunean jartzeko emandako baimenak 2018-2019 ikasturtetik aurrera izango ditu ondorioak eta ikastetxea Ikastetxeen Erregistroan inskribatzea ekarriko du.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honetan dagoen baimen-emateak ez du esan nahi hezkuntza-itunen araubidearen bitar-tez diru-laguntzarik lortuko denik.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkun-tzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintari-tzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urriaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.